



ERRENTERRIAKO EMAKUMEEN ETXEA





ERRETERIA
UDALA



Errenteriako
Berdintasunerako
Kontseilua
Consejo de Igualdad
de Errenteria

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



Testuak Irakurketa Errazean

Logotipo honek ziurtatzen du eskuartean duzun liburuxkak IFLA-k (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europe-k zehazturiko nazioarteko arauak betetzen dituela eta irakurtzeko eta ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat material egokia dela.

Dokumentu hau Lectura Fácil Euskadi Irakurketa Errazak egokitu, orraztu eta ziurtatzen du.

Errenteriako Emakumeen Etxeak
16 urtetik gorako emakume
guztientzako erreferentziazko
gune izatea du helburu.

Espazio segurua da. Zertarako?

- **elkar topatzeko**
- **eztabaidatzeko**
- **gogoeta egiteko**
- **emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiteko**
- **feminismoaren alde lan egiteko**

Bertan eskaintzen diren zerbitzuak,
jarduerak eta ikastaroak doakoak dira.

Non gaude?



Emakumeen Etxea
Txirrita Parkea, zenbaki gabe
Errenteria



943 449 630



emakumeenetxea@errenteria.eus



[http://www.errenteria.eus/
emakumeenetxea](http://www.errenteria.eus/emakumeenetxea)



Noiz?

Astelehen eta ostiral goizetan:

A a a o **O** l i



9:00 - 1:00

Astearte, asteazken eta ostegun arratsaldetan:

a **A A O** o l i



4:00 - 8:00



Nola parte har dezakezu erabakietan?



Emakumeen Etxearekin zerikusia duten erabakiak hartzeko (jarduerak proposatu, zerbitzuak aztertu, eskubide eta betebeharrak arautu...) 3 espazio daude:

- Batzarra
- koordinazio organoa
- lantaldeak

Jabekuntza:

prozesu bat da. Emakume bakoitzak besteentzat aritzeari, eta besteen objektu izateari uzten dio. Bere bizitzaren subjektu bihurtzen da. Orduan, bere buruaren jabe izango da eta historiaren, kulturaren, politikaren eta bizitza sozialaren protagonista izango da.

Zer aurkituko duzu?



Eskola feminista

Eskola Feministan ikastaroak, tailerrak eta **jabekuntza** taldeak antolatzen dira. Ikasturteko programazioa eskaintzen da.

Informazio gehiagorako:
<https://errenteria.eus/Berdintasuna/EskolaFeminista>



Jardueren programa

Hitzaldiak, zineforumak, mahai-inguruak... antolatzen dira irailetik uztailera.

Jarduera hauek Emakumeen Etxeko erabiltzaileek, emakumeen elkarteek eta elkarte feministek antolatzen dituzte, beti Emakumeen Etxeko erabakitzeko guneen bidez.



Liburutegi feminista

Emakumeen Etxeko liburutegi feministan liburu, aldizkari eta film feministak ditugu. Eduki feministak eta emakumeek sortuak.

Horiek guztiak liburutegian irakurri edo maileguan eraman daitezke.

Maileguan eraman ahal izateko, Kulturkreaktibo txartela edo liburutegiko txartela behar dira.

Zer zerbitzu eskaintzen dugu?



- Emakumeentzako harrera eta arreta
- Orientabide juridikoa
- Norbanakoaren jabekuntzarako gunea
- Autozaintza psikologikorako eta sexualerako gunea
- Parekatu: ikasketak homologatzeko eta prestakuntza-ibilbideetarako aholkularitza

Emakumeentzako harrera eta arreta

Gai hauei buruzko informazioa eta orientazioa eskaintzen da:

- Emakumeen Etxeak eta Eskola Feministak eskaintzen dituen zerbitzu eta baliabideak,
- Errenteriako udalak eskaintzen dituen emakumeentzako baliabideak,
- Errenteriatik kanpo dauden bestelako emakumeentzako baliabideak.

Noiz?

Astelehen eta ostiral goizetan:



9:00 - 1:00

Asteartetik ostegunera, arratsaldez:



4:00 - 8:00

Orientabide juridikoa

Aholku eta orientabide juridikoak eskaintzen dira, laguntza behar den kasuetan:

- diskriminazio, babesgabetasun edo indarkeria egoera, Adibidez, indarkeria matxista eta etxekoa, jazarpen sexuala, eraso sexualak...
- etxeko langileen eskubideak,
- familia zuzenbidea,
- lan eskubideak,
- atzerriko pertsonen eskubideak: atzerritartasuna...
- adinduen eskubideak. Adibidez, erretiroa, pentsioa, alarguntasuna...
- **espetxe eta zigor zuzenbidea.**

Nork?

Marisa Rodríguez, abokatuak

Hizkuntza: Gaztelera

Noiz?

Astearte arratsaldetan:



6:00 - 8:00

Hitzordua hartu behar da:

- deitu: 943 449 630
- idatzi: emakumeenetxea@errenteria.eus

Espetxe zuzenbidea:

kartzela zigorrak betetzen direla arautzen dituzten arauak dira. Honen helburuetako bat da zigorra duen pertsonaren gizarteratzea lortzea.

Zigor zuzenbidea:

delituak eta hauek egiten dituzten pertsonak zigortzen dituzten arauak dira.

Norbanakoaren jabekuntzarako gunea

Norbere burua ezagutzeko, kezkak hitzez azaltzeko edo arazoei irtenbideak aurkitzeko laguntza eskaintzea da zerbitzu honen helburua.

Hurbileko tratuan eta norberaren indarretan oinarrituta.

Nork?

Maite Santamaría, psikologoa

Hizkuntza: Gaztelera

Noiz?

Astearte arratsaldetan:

a	A	a	o	o	l	i
---	----------	---	---	---	---	---



4:00 - 6:00

Hitzordua hartu behar da:

- deitu: 943 449 630
- idatzi: emakumeenetxea@errenteria.eus

Norberaren zaintza psikologikorako eta sexualerako gunea

14 urtetik gorako emakumeentzako gunea da gure burua zaintzen eta errespetatzen ikasteko.

Zure **arazo afektiboei**, sexualei edo psikologikoei buruz informazioa eta orientazioa ematen da.

Nork?

Elizabeth Olaskoaga,
Oreka guneko psikologoa eta sexologoak

Hizkuntza: Euskara, Gaztelera

Noiz?

Ostegun arratsaldetan:

a	a	a	O	o	l	i
---	---	---	----------	---	---	---



5:00 - 7:00

Hitzordua hartu behar da:

- deitu: 943 449 630
- idatzi: emakumeenetxea@errenteria.eus

Arazo afektiboa:

Sentimenduen kudeaketarekin zerikusia duten arazoak dira.

Parekatu: Ikasketak homologatzeko eta prestakuntza-ibilbideetarako aholkularitza

Banakako aholku eta informazioa ematen da, hurrengo egiteko:

- pertsonaren jatorrizko herrialdean egindako ikasketak **homologatu**,
- zer lan mota egin nahi den erabaki,
- hemen edo hemendik kanpo ikasi.

Gainera, autonomia eta jabekuntza lortzen laguntzeko hurrengo prozesuetan jarraipena eta laguntza ematen da:

- pertsonaren ikasketak homologatzeko,
- ikaskuntza ibilbideetan.

Nork?

Katia Reimberg, Bidez Bide elkarteko orientatzaileak

Hizkuntza: Gaztelera, Portugesa

Noiz?

Hilabeteko azken asteazken arratsaldetan:

a	a	A	o	o	l	i
---	---	----------	---	---	---	---



4:00 - 8:00

Hitzordua hartu behar da:

- deitu: 943 449 630
- idatzi: emakumeenetxea@errenteria.eus

Homologatu:

baliozkotzat onartzea beste herrialdean gainditutako ikasketak.
